

EUSKARA 5

eskuliburua

Egileak:

Régine Elosgi Blanc pedagogia aholkularia
eta Jaki Elkano eskoletako irakaslea,
Maite Erdozaintzi-Etxart, Maialen Goienetxe eta Maider Irigoin irakasleen esku hartzearekin

Ilustratzaileak:

Clémence Itssaga
Ainara Azpiazu «Axi»
Marko
Haize Othondo
Stéphane Bourget
Jean-Michel Lasausa
Laure Gomez

Aurkibidea

1. garaia

- | | |
|--|----|
| 1 | 6 |
| Ikasgelen argazki batzuk | |
| 2 | 10 |
| <i>Errientsa berria</i>
Daniel Landart | |
| 3 | 12 |
| <i>Xoxoak galdu euskara</i>
Mixel Etxekopar | |
| 4 | 13 |
| <i>Euskara ikasten jarraitzeko</i>
Berria - Mantangorri | |
| 5 | 16 |
| Gaztetxoei egokitua
zaien entziklopedia | |
| 6 | 20 |
| <i>Letrak elurretan</i>
Antton Kazabon | |
| 7 | 22 |
| “Ikasi nahi dut” gaiari buruzko sarea 23. or.
<i>Madasa</i> Michel Séonnet - Cécile Geiger
<i>Nola zuzendu andereño gaizto bat</i> Miren Agur Meabe
<i>Sudurretik txintxilika</i> Juan Kruz Igerabide - Montse Adell | |

2. garaia

- | | |
|--|----|
| 1 | 30 |
| Irakorrika : Fantastiko edo zientzia fikzio liburu batzuk
- <i>Super PATATA, Super PATA-TAren jatorria,</i>
- <i>Txano eta Oscar Harri berdea</i>
- <i>Super robot txikia</i>
- <i>Alizia haurrentzat,</i>
- <i>Istorio zibernetikoak</i>
- <i>Astigar basoa,</i>
- <i>Alfonbra berria,</i>
- <i>Hitz eta zaunka,</i>
- <i>Euskaldun bat Marten,</i>
- <i>Jon eta Mirka Espedizio galdua</i> | |
| 2 | 34 |
| <i>Telelabyrinthoa</i>
Mayi Pelot | |
| 3 | 36 |
| <i>Lurtarrak</i>
Xabier Monasterio | |
| 4 | 40 |
| Alizia eta antzara jokoa
Lola Moral & Sergio Garcia
«Le Voyage dans la Lune» (“Ilargirako bidaia”), Georges Méliès-en filma. 1902an egin zuen hamar bat minutuko labur metraje hori. Film horretan ikusten da jakintsu talde batek Ilargirako bidaia nola antolatzen duen, nola Ilargiratzen diren eta hango estralurtarrak, Selenitak, nola ezagutzen dituzten. | |

3. garaia

- 1

48

Euskal Herriko Ihauteri batzuk
- 2

50

Zaharra, gizona, txarra eta beltza bota!
- 3

54

Uztaritzeko Zanpantzarren auzia
- 4

60

Libertimendua, maskarada zer ote da? Kaskarotak nor dira?

4. garaia

- 1

68

Gure azieta, gure Euskal Herria
- 2

70

Etxalde, hazkuntza eta baratzezaintza ereduak
- 3

72

Jatekoa non eros, eta zer jan?
- 4

73

Nondik etor liteke gure elikadura edo abereena?
- 5

74

Izar saltzailea
Eneko Bidegain & Anne Baskaran
- 6

78

Hiztegia eta testu gramatika
- 7

80

Olerkiak & kantuak

5. garaia

- 1

84

OULIPO idazlan poetikoak
- 2

86

Gernikaren bonbardaketa eta horren eragina artean
- 3

88

Gaurkotasunari buruz zer diozu?
- 4

94

Aingeru galduaren bila
Max Ducos
- 5

98

Hiztegia eta testu gramatika
- 6

100

Olerkiak & kantuak

1. GARAIA

IKASI NAHI DUT!



Gaia sar zaitez
Testua uler ezazu
Obra luze bat irakur eta uler ezazu
Irakurtzen eta idazten treba zaitez
Ahoz adieraz ezazu
Idatz ezazu
Testu eta obren arteko loturak egin itzazu
Hiztegia
Testu gramatika
Olerkiak, kantuak eta erran-zaharrak

<i>Ikasgelen argazkiak</i>	Ikasgelen deskribatzea	6. or.
Errientsa berria Daniel Landart Maider ...	Euskarari buruzko lekukotasunak ulertzea	10. or.
Euskara ikasten jarraitzeko Berria - Mantangorri	Prentsaren irakurtzea eta ulertzea Egunkarien antolamendua argitzea	13. or.
Gaztetxoei egokitutako entziklopedia Berria - Mantangorri	Entziklopedia birtualen antolamenduaren eta funtzionamenduaren ulertzea	16. or.
<i>Letrak elurretan</i> Atton Kazabon	Ikasteari buruzko obra bat ulertzea	20. or.
	Irakurketa estereon	
XX. mendeko beste ikasgela eta ikasleak	Tokiak eta jendea deskribatzea	8. or.
Gaztetxoei egokitua zen entziklopedia	Artikulu entziklopediko baten idaztea	19. or.
	Ikaste gaia sakontzea	22. or.
Euskara ikasten jarraitzeko & Gaztetxoei egokitutako entziklopedia erreportajeen hiztegia	Prentsa erreportajeak irakurri aitzin hiztegia ikastea	24. or.
	Deskribapenaren ezaugarriak ezagutzea	
Ikaste buruzko olerkiak, kantuak eta erran zaharrak		26. or.



Gaian sar zaitez

Eskola publikoaren museoan iragan mendeko ikasgelak bezalakoak badira. Argazki hauetan ageri dira. Ikasgela bat hauta ezazu, zenbakia erran gabe. Lagunei deskriba iezaiezu, hautatu duzun argazkia zein den atzeman dezaten.



Azpiko argazkietan XXI. mendeko ikasgela zenbait ageri dira. Argazki bat hauta ezazu, haren zenbakia erran gabe. Lagunei deskriba iezaiezu, zein argazki den atze-man dezaten.





Ahoz adieraz ezazu



XX. mendeko beste ikasgela eta ikasle hauek deskriba itzazu.
Zer ikusten duzu? Eskolako bizia nolakoa izan zitekeen azal ezazu.



Untzue Nafarroa 1911ko martxoaren 10a



Untzue Nafarroa 1911ko apirilaren 30a

Etxekoei galdegin diezazkiekezue argazki batzuk atxiki dituztenez, eta konpara.



Untzue - Nafarroa 1912.01.01 - 1920.08.31



Ibero 1920.10.01 - 1940.01.01

Errientsa berria

1 Segur, berria laster zabaldu zen: errienta bularretik eritu zela eta zenbait hilabetez bederen ez zigula eskolarik egiten ahalko. Hori jakitean, denok pena hartu genuen, gure irakaslea arras maite genuelako, hain zen argia eta laketa.

Lehen ordaina, eskola ttipiko errientsa izan zen. Errientsa sudur luze, mehe-mehe bat.

5 Frango goxoa, oro har. [...]

Baina hiru egunen buruko, gauzak aldatu ziren. Errientsa bat etorri zen, baina ez eskola ttipikoa...Eta segidan erran zigun hura zela errientaren “egiazko” ordaina. Lehen solasetarik beretik ohartu ginen ez zela eztiño haietarik eta hain segur larderia bortitzenaren azpian atxikiko gintuela pentsatu genuen. Ez ginen tronpatu. Gure errientsa berria “animale

10 gogorra zen”. Aboza ozen eta begia zorrotz, beldurra ematen zigun. [...]

Bestalde, gure errientsak uste zuen frantsesaren ongi ikasteko euskara ahantzi behar zela. Beraz, erabaki hau hartu zuen: errekreazione denboran ere denok beti frantsesez ari izan behar genuela.

Ordu arte nola ari ginen, xuxen ez nekike errateko, hain segur kliskun-klaskun, bi mintzairak

15 nahastekatzen genituzkeen, baina errientsaren debekuak ondoriotzat ukan zuen, sekula baino gehiago euskara entzuten zela errekreazione denboran.

Egitate horren aitzinean errientsa arrunt haserretu zen eta zernahi erran zigun. Baina aldi hartan ez zen mehatxuetan gelditu. Errekreazionerakoan jats bat hartu zuen eta gutarik bati eman zuen erranez: “Nor bait entzunen dukanean euskaraz ari, aski diok pasatzea...

20 harek gero beste bati eta eskolara sartzeko mementuan jatsa eskuan atxikiko duenak gaztigu bat ukanen dik!...”[...]

Lehen egunean, uste dut, ez nuela hitzik atera eta nik bezala beste askok. Baina, biharamunean pilotan hastera gindoazelarik, mila-miliunka aldiz bezala, bota nuen: “Jo!”...

Ordu berean, jatsduna ondora etorri zitzaidan, baizik-eta euskaraz mintzatu nintzela. Nik

25 ezetz. Hark baietz: “Jo!” erran nuela eta “Jo!” euskaraz zela. Hainbestetaraino durduzatua nintzen non ez banekien gehiago

“Jo!” frantsesez ala euskaraz zen ere. Euskaraz zatekeen, zeren luze gabe, eskolako ate ondoan plantatu behar ukan bainuen, neure jatsa eskuan. [...]

Inoiz ez dut ahantziko zer bihotz-zimikoa izan zen hori enetzat. Lehenik afruntua. Gero gaztigua:

30 Je ne parlerai pas en basque

Je ne parlerai pas en basque


Je ne parlerai pas en basque

Je ne parlerai pas en basque

Je ne parlerai pas en basque

- 35 Je ne parlerai pas en basque
berrogeita hamar aldiz idazteak, nahi eta ez, gure izpiritua “lantzen” zuen. Eta nola!
Eta sekula berriz “harrapatuak” baldin baginen, gaztigua doblatua zen, erran nahi
baita, ehun aldiz idatzi behar genuela:
Je ne parlerai pas en basque [...]
- 40 Gure errientsa, aldiz, kontexko zen...Donoztiriko eskolako haurrek frantsesa
mintzatzen zutelako Tamanrasset-ekoek bezain ongi. Funtsean, ez ote zigun aski
usu errepikatzen: “La France est une et indivisible de Dunkerque à Tamanrasset”.
Kasik urte bat gurekin egonik, egun batez, errientsa berria joan zen.
-”Sans pleurs ni couronnes”
- 45 Errient bat etorri zitzaigun, baina ez lehengoko hura.
Sekulan ez diogu salatu “jatsaren istorioa”. Ez zuen
balio: errekreazione denboran denok frantsesez ari ginen.
Je ne parlerai pas en basque

Daniel Landart.
Aihen ahula, haur denborako hixtorio mixterio,
Elkar 1978





BAIONA
16.00
Lauga



**euskarak
murgiltzea
behar du!**



LINGVAE VASCONVM PRIM-
tie per Dominum Bernardum Dechepare
Rehovem factu michelis veteris.



Bernart Etxepare Garazi aldean sortu zen 1480 urte inguruan. Eiheralarreko erretore eta Donibane Garaziko bikario izan zen. 1545ean euskarazko lehen liburua argitaratu zuen. 52 orrialdeko liburua 15 poemaz osatua da. Horietarik bat –Kontrapas – biziki ezagun egin da Xabier Letek musikatu eta.



Ez Dok Amairu taldea 1965ean sortu zen. Euskal Herriko kultura mugimendua izan zen. Hainbat artistak osatu zuten; kantari eta idazleak nagusiki. Garai hartan, hego Euskal Herrian diktadura zen eta euskal kultura neurri handi

batean azpiratua. Bereziki kultura sailekoa izanik ere, eragin handia izan zuen politikan.

Lan berritzailea egin zuten: euskaraz ordu arte eginiko aipagarrienetarik izan zen. Taldekide ezagunenak hauek izan ziren: Joxan Artze, Jose Angel Irigarai, Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta, besteak beste.



2021eko ekainean 3koa

XOXOAK GALDU EUSKARA

Xoxoak galdu euskara
Etxeparerena
Eta gu denena
Biharko haurrena
Euskara

**Nola kanta, nola hitzeman
Euskal Herrian Euskaraz!**

Xoxoak berriz ikasi
Eskolan ikasi
Goizetikan hasi
Egunero hazi
Eta bizi

Nola kanta ...

Frantziak “ez!” erabaki
Parisetik beti
Guretzat badaki
Hegoak ebaki
Guk aski

Nola kanta ...

Xoxoak baietz oldartu
Hori ez onartu
Plaza berriz hartu
Goraki kexatu
Kantatu

Nola kanta ...

Xoxoak lagunak bildu
Ongi badakigu
Ez dok hamahiru
Bideak zabaldu
Ez isildu

MUNDUARI ADI

HIZKUNTZA GUTXITUAK

Euskaraz ikasten jarraitzeko



GUILLAUME RAUFAY

1.

ZER DA HIZKUNTZA GUTXITUEN LEGEA?

Frantziako Legebiltzarrak euskara eta beste hizkuntza gutxitu zenbaiten aldeko legea onartu du, *Molac legea*. Bozketa garrantzitsua izan da Ipar Euskal Herrirako, baita Frantziako Estatuaren menpe diren beste lurraldeetako hizkuntza gutxitu guztientzat ere. Hizkuntza horiek ikasteko eskubidea indartuko da aurrerantzean. Adituen esanetan, historikoa da lorpena; hala ere, asko falta da hizkuntza gutxituak frantsesak duen aitortza mailara irits daitezen.

247

Legearen
alde egin
duten
diputatuak

Prozesua

2020ko otsailean heldu zen Frantziako Asanbleara Paul Molac diputatu bretoiaren lege proposamena. Baina, lehen irakurketan, garrantzi gutxi eman zioten diputatuek. Aurtengo apirilaren 8an, hizkuntza gutxituen geroa bermatzeko garrantzi handiko bozketa egin, eta legea onartu zen, nahiz eta Frantziako Gobernua kontra azaldu. Hain zuzen, herenegun 60 diputatuk helegitea jarri zuten legearen kontra, eta orain auzitegiak erabaki beharko du azkenean legea gauzatuko den.

BA AL DAKIZU?

1951z geroztik ez da egon hizkuntza gutxituei buruzko legerik Frantzian.

4 m a n t a n g o r r i

LARUNBATA, 2021EKO APIRILAREN 24A berria



MUNDUARI ADI HIZKUNTZA GUTXITUEN LEGEA

2.

ZER ONDORIO DITU LEGEAK?

Murgiltze eredua: Egund, batik bat, Ipar Euskal Herriko ikastoletan aplikatzen da murgiltze eredua. Ikastetxe barrura sartuta, osoki euskaraz funtzionatzen duen ingurune batean sartzen da ikaslea. Lege honen bidez, murgiltze eredu hezkuntza publikoan eman ahal izango da.

Finantzaketa: Hizkuntza gutxiak irakasten dituzten eskolek diru gehiago jasoko dute.

Seinuletika: Kaleko seinaleak bi hizkuntzatan agertzea ofiziala izango da.



ISABELLE MIQUELESTORENA

BA AL DAKIZU?

Gaur egund, Ipar Euskal Herrian, azterketa ofizialak frantsesez soilik egin daitezke.

4.

EGUNGO EGOERA

Gaur egund, hizkuntza gutxituen irakaskuntzari dagokionez, bi aukera baizik ez ditu aurreikusten Frantziako Hezkuntza Kodeak sare publikoan: sail elebiduna, irakasgaien erdiak frantsesez eta beste erdiak hizkuntza gutxituan jasotzea; edo hizkuntza gutxituaren irakaskuntza ikasgai modura ematea. Bestalde, ikastolek murgiltze eredua eskaintzen dute, osoki euskaraz ikasteko aukera.

4.000
ikasle

Seaskako
ikastoletan gaur
egund



3.

MURGILTZE EREDUA

Murgiltze ereduan oinarritutako irakaskuntzaren helburua bi hizkuntzak menperatzea da, elebitasuna lortzea. Ikasle bakoitzak bi hizkuntzetan nahikoa komunikazio gaitasun lortzen du, eta bi hizkuntzekiko errespetua sustatzen da.





m a n t a n g o r r i 5

BA AL DAKIZU?

Hizkuntza gutxitua eta gutxiengo hizkuntza ez dira gauza bera. Gutxiengo hizkuntzak hiztun gutxi dituztenak dira, baina arazorik gabe hitz egin daitezke. Hizkuntza gutxituak bazterketa, jazarpena edo debekua pairatzen dituzten hizkuntzak dira.


5. HIZKUNTZA GUTXITUAK



1 BRETOIERA: Britainiak jatorrizko hizkuntza da. Gaur egun, bretoieraren hiztunak 300.000 inguru dira; ondorioz, egoera oso larria da. Gero eta jende gutxiagok daki, eta galtzeko atarian egon daiteke. Oso gazte gutxi dakite.

2 ALSAZIERA: Alsazian mintzatzen den hizkuntza. Alsazia Frantziako ipar-ekialdeko eskualde historiko eta kulturala da, Alemania eta Suitzarekiko mugan kokatua. Alsazierazko hiztun askok aleman estandarrez idazten dute. 700.000 lagun inguruk hitz egiten dute.

3 KATALANA: 150.000 pertsona inguruk hitz egiten dute katalana Ipar Katalunian, eta ia 300.000ek ulertu. Hiriburua Perpinyà da.



4 KORSIKERA: Korsika mediterraneo itsasoan dago. Sardinia uhartearen iparraldean dago. Korsikera hizkuntzan batik bat helduak mintzatzen dira, gazteen artean ez dago oso hedatua; 125.000 hiztun inguru ditu. Korsikerak musika du indargune nagusia.



5 OKZITANIËRA: Okzitaniako erromantze hizkuntza da. Frantzian, Loira ibaitik hegoaldera mintzatzen da. 1.758.000 lagunek hitz egin dute okzitaniëra. Euskal Herriari dago-kionez, mugako toki gutxi batzuetan hitz egiten da gaskoia, okzitaniëren dialekto bat.



6. IPAR EUSKAL HERRIKO IRAKASKUNTZAREN EGOERA

Ipar Euskal Herrian nagusi den irakaskuntza eredua frantses hutsezkoa da. Hizkuntza ofizial bakarra frantsesa izateak oztopo handiak sortzen ditu euskararen irakaskuntzan. Legez, euskara irakastea ez dago debekatua, baina ez da derrigorrezkoa. Gaur egun, murgiltze eredua haur eskolatik lizeora bermatzen duten eskola bakarrak Seas-kako ikastolak dira. Haur hezkuntzako eta lehen mailako 32 ikastetxe, 4 kolegio eta lizeo bat ditu Seasak.

ERREPORTAJEA

Txikipedia



Gaztetxoei egokitutako entziklopedia

Txikipedia haurrentzako Wikipediaren aplikazioa aurkeztu dute. IOS eta Android sistemetan erabil daiteke, eta aplikazioa lortzeko lotura 'Txikipedia.eus'-en dago eskuragarri.

Interneten argitaratzen den eduki askeko informazio gune erraldoi bat da Wikipedia. Munduko edozein txokotatik, edozein unetan pertsona orok du Wikipedian edukia sortu eta jakintza partekatzeko aukera. Jakintza esparru guztietako edukiak biltzen ditu entziklopediak, eta gaur-gaurkoz 291 hizkuntzatan ditu edukiak eskuragarri.

Informazio biltoki birtual horrek badu haur eta gaztetxoei egokitutako adarra: Txikipedia. Gazte entziklopediak eta Wikipediak funtzionamendu eta helburu berberak dituzte: edonork sor dezake edukia, eta horrela elikatzen da entziklopedia birtuala, mundu osoko wikilarien lan boluminarioaren bidez. Halaber, hizkuntza egokitua darabilte Txikipediako orriak sortu eta elikatzen dituzten wikilariak, gaztetxoentzat ulergarria den edukia prestatuz.

Ordenagailutik sakelakora

Hedatuz eta haziz doa Txikipedia eguneratik egunera, eta urrats berri bat egin du orain: ordenagailuko pantaila-

tik sakelakora egin du salto. Sakelako telefonoetarako aplikazio bat aurkeztu du Euskal Wikilarien Elkartek Codesyntaxekin elkarlanean. Aplikazioa deskargatzeko loturak Txikipedia.eus-en daude eskuragarri, eta Android zein IOS sistemetan erabil daiteke.

2018an jaio zen Txikipedia, eta, batez ere, 8-13 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago. Euskal Wikilarien Elkartek Wikipediaren bertsio laburtu eta sinplifikatua sortzea erabaki zuen, zenbait artikuluz luzeegiak, korapilatsuegiak eta zailegiak izan daitezkeela iritzita. Era berean, Txikipedia badu 2006an Frantzia sortutako aurrekari bat: Wikidia. Gaztetxoei egokitutako eduki faltaren kezkatik tiraka 2015ean sortu zen euskarazko Wikidia. Orduan, frantsesezko eduki asko euskaratu eta moldatu zituzten.

Sorreratik gaurdaino 2.700 artikuluz inguru biltzen ditu Txikipedia. Natura, kultura, zientzia, gizarte, kirola... hainbat arlotako jakintza topa daiteke. Era berean, pertsonaien soslaiak eta biografiak, kontzeptu orokorren inguruko deskribapen eta azalpenak eta gai orokorren bueltako bitxikeriak aurki daitezke Txikipedia arakatzan. Izan ere, hitz, kontzeptu eta



●● Urdiairi buruzko Txikipediako orria sortu duen haur taldea. EUSKAL WIKILARIEN ELKARTEA

Wikilaririk gazteenak

Sakanan, hain zuzen Urdiainen, daude inoizko wikilaririk txikienak. 2019ko amaieran Euskal Wikilarien Elkartek Sakanako Garapen Agentziarekin garatutako proiektu baten emaitza izan zen 6-9 urte bitarteko urdiaindaren parte hartzea. Haurrek euren herriari buruzko informazioa ikertu, sortu eta idatzi zuten. Lehenbizi, Urdiainen inguruan Wikipedian zegoen informazioa irakurri eta ulertu zuten gazteek, ostera, Txikipedia bertsio propioa osatu ahal izateko. Ariketa horren bidez, zenbait alor landu zituzten Urdiaingo gazteek: informazio bilaketan sakondu, elkarren artean komunikatu zalantzak argitzeko, segurtasun informatikoaz ikasi eta eduki digitala sortu dute.

izen berdinekin bi bertsio dituzte: baitetik, Wikipediako artikuluz luze eta zehatzak, eta bestetik, Txikipediako egokitutako bakanagoei, lexiko, egitura zein gramatika aldetik. Askotan, eskolako lanak egiteko baliatzen dute haur eta gaztetxoek Txikipedia. Eduki hori jaso ez ezik, sortzaileak

tibo ere bihurtu nahi dituzte gaztetxoak. Edukiak hutsetik sortu edo dagoeneko hasita daudenak osatu eta zuzentzeko aukera ematen du Txikipedia, eta 8-13 urteko gazteak editatzen ikasi eta ekarpenak egiten jakitea da sortzaileen beste helburuetako bat.

BA AL DAKIZU?

Ba al dakizu, adibidez, gure eguzki sistemako planeta gehienek jainko erromatarren izenak dituztela? Merkurio jainkoen hegaldun mezularia zen, eta izen horri jarri zioten planetari, azkar mugitzen dela dirudielako. Planetarik handienari Jupiter izena jarri zioten, jainko hori guztien erregea zelako. Saturno planetak Jupiterren aitaren eta denboraren jainkoaren izena darama (planetari zahar itxura ikusi zioten, poliki mugitzen baita). Eguzki sistemaren Txikipediako artikuluan irakur dezakezu gehiago.

2.861
artikulu

Bisita gehien duten artikulua: *Izaki bizidun, Eguzki sistema, Iraitz aparatua, Aro Modernoa.*

BA AL DAKIZU?

Eta, ba al dakizu lurrikara bat zer den? Lurrazalak izaten duen mugimendu edo astinaldi indartsuari lurrikara esaten zaio eta Nafarroan bertan ere noizean behin izaten dira! Baina, lasai, lurrikara nafarrak oso txikiak izaten dira normalean. Indartsuenak 5,5eko magnitudea izan zuen eta 1903an gertatu zen. Interresgarria irudituta bazaizu, Txikipediako Lurrikara artikuluan hobeto ezagutu dezakezu nola sortzen diren.

540.000
ikustaldi azken urtean



Elikadura janaria jatea da, edo, bestela esanda, organismo bizi batek bizirik jarraitzeko behar dituen [elikagaiak](#) hartzea.


Organismo edo izaki biziak elikaduraren bidez hartzen dituzte elikagaiak. Elikagai horiek, gero, [digestioaren](#) bitartez, [mantenugai](#) bihurtzen dira. Beraz, elikaduraren bitartez, izaki biziak energia eta oinarritzko molekula batzuk eskuratzen dituzte, geroago beste molekula konplexuago batzuk fabrikatzeko erabiliko dituztenak.

Elikadura, [nutrizioa](#) ez bezala, ekintza kontziente eta borondatezkoa da. Pertsona baten elikadura faktore askok baldintzatzen dute: ingurumenak, faktore ekonomikoak, gizarte-ohiturek, klimak, erlijio-sinesmenek eta abarrek. Horregatik, gizakiaren kasuan, elikatze modu asko daude, baina nutrizioa beti berdina da gizaki guztientzat.



Elikagaiak.

Kategoriak: Txikipedia:Biologia | Txikipedia:Fisiologia | Txikipedia



Haragijale edo **karniboroak** batez ere haragia jaten duten izaki bizidunak dira. Badaude animalia eta baita landareak ere haragijaleak direnak, animaliak jaten dituztelako.

Animalia haragijale batzuek [ehizaren](#) bidez lortzen dute haragia, beste animalia batzuk harrapatuz eta hilez (horregatik, [harrapariak](#) direla esaten da); baina beste batzuk, berriz, hilda topatzen dituzten animalien haragiaz elikatzen dira (hauei [sarraskijale](#) deitzen zaie). Beste animalia batzuek eta [landare haragijaleek](#) batez ere [intsektuak](#) jaten dituzte, eta horregatik [intsektujale](#) (edo [intsektiboro](#)) ere deitzen zaie. Azkenik, karniboroen artean, batez ere [arainak](#) jaten dituzten animaliak ere badaude, eta horiei [arainjale](#) edo [iktiboro](#) deitzen zaie.



[Lehoiek](#) haragi kilo asko jan behar izaten dituzte.



[Landare haragijale](#) bat intsektua jaten.

Ikus, gainera [[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

- [Orojale](#).
- [Belarjale](#).
- [Barazkizale](#).

Kategoriak: Txikipedia:Biologia | Txikipedia



Testua uler ezazu

I - Eskuliburuaren 8.-11. orrialdeak.

- 1 Dokumentuak azaletik irakur itzazu. Zer gai aipatzen ote da?
Kantua ikas dezakezu lagunekin.
- 2 Dokumentuak xeheki irakurriz dokumentu horien osaketa azter ezazu.
 - a) Zer dokumentu mota atzematen dira?
 - b) Dokumentu horiek erakusten edo azaltzen dutena laburbil ezazu idatziz.
- 3 Prentsa artikulu bakoitzak zer azaltzen ote du?

II - Prentsa erreportajea irakur ezazu (14.-15. or.). Gaztetxoei egokitua zaien entziklopediari buruz zer dio? Taula batean biltzen dituzun xehetasunak kopia itzazu: nola antolatua da eta nola funtzionatzen du?

TXIKIPEDIA ENTZIKLOPEDIA BIRTUALA	
Entziklopediaren osaketa Nola antolatua ote da? Zer aurki daiteke entziklopedia batean?	<i>Txikipedia</i> entziklopediaren funtzionamendua eta helburua
-	-
-	-
-	-




Idatz ezazu

- 1 Argibide artikulu bat idatziko duzu.
 - a) Lehenik *Txikipediako* artikulu batzuk azter itzazu eta haien ezaugarriak zerrenda. Artikulu horietan zer da berdina?
 - 1) Nola antolatuak ote dira? (Zer forma ote dute?)
 - 2) Edukiak nola idatziak ote dira? (Erabilia den hizkuntza azter ezazue)
 - b) Ondotik ezaugarri horiek kontuan hartuz eta hautatu gaiari buruzko argibideak bilduz, artikulu bat idatz, bakarrik edo taldeka.
Artikulu guztiak bil ditzakezue liburuxka batean biltzeko, edo garbiki idatzi eta ongi landu eta *Txikipedian* ezartzeko.



Obra osoa irakur ezazu

Denis aitonarekin bizi da mendian, gustura asko gainera. Baina aitonak badu kezka bat: Denis ez da eskolara joaten, baserritik urruti baitago eta horregatik, oraindik ez daki ez idazten ezta irakurtzen ere. Aitonak Edurne lehengusinari eskatu dio oporretan baserrira joatea eta Denisi letrak irakurtzen ikastea.




1 Aitonaren xedea zer ote da?

- a) Lehen bi kapituluetan aitonaren gaia adierazten dituzten hitzak edo hitz multzoak bil itzazu.
- b) Aitonaren xedea sustengatzen duten beste bi pertsonaia badira. Zer ote diote?

2 Zergatik tematzen ote da aitona? Denisek ulertzen ote du aitonaren tema?

3 Denisek irakurtzen gogoaz ote du? Zer egoeran pizten zaio irakurtzeko gogoaz Denisi? Azkenean nola ikasi du irakurtzen eta idazten?

4 Denisek bere kaleko lehengusuari zer irakasten dio?



Ahoz adieraz ezazu



62. orrialdean, *“Denisek, Edurneri beste gauza batzuk irakurtzen erakutsiko diola erraten dio. Edurnek, horrela bada, bere paperezko liburuak irekitzeko denborarik gabe geldituko direla erantzuten dio. Txandaka ari beharko direla adosten dira.”*

Eta zuk, zer irakurtzen ikasi nahi zenuke

- a) Liburuetan.
- b) Liburuetarik kanpo.

Zerrenda egizu.

Ondotik ikaskideen artean eztabaida ezazue. Eskolan irakurtzen eta idazten ikasteak zer ekartzen dizu? Zer eskas zaizu? Zuen eskolan posible liteke beste zerbaiten irakurtzen ikasten hastea?




Obren arteko loturak egin itzazu




Ez zait irakurtzea gustatzen / Pako Aristi, Jokin Mitxelena
© Elkar, 2008

Nemesiori ez zaio gustatzen irakurtzea. Bizitzan beste gauza interesgarri asko daudela uste du. Andereñoak beti esaten dio zerbait irakurri behar duela eta zerbait irakurri behar duela. Ipuinek eta historiek magia omen daukate, baina magia horretaz gozatzeko, nork bere bidea aurkitu behar du. Nemesio bere bidea egiten ari da. Eta bere bidean ipuinekin topatu da, ipuinen magiarekin.



Hiztegi jolastia / Joxantonio Ormazabal, Elena Odriozola - © Elkar, 2003

Alfabetoko letra bakoitzak bere poematxoa, bere marrazkitxoa. Ez da kontsultarako hiztegi bat, jolaserako baizik, eta jolas eginez irakurtzen trebatzeko ere bai. Umorea da liburu honen gakoa, bai testuan eta bai marrazkietan. Azal gogorra eta koloretako marrazkiak.




Zuk-Zuk jaunaren alfabeto berria / Bernardo Atxaga, Mikel Valverde, © Elkarlanean, 2004

Laburpena: Zuk-zuk jaunaren alfabeto berri hau ipuina da, edo hobeto esanda super-ipuina, super-ipuina eta hiper-ipuina, eta gainera piper-ipuina. Baina ez da super edo hiper edo piper-ipuina bakarrik, zeren eta asmakizuna ere bai baita, eta asmakizun zaila, gainera, zaila, super-zaila, hiper-zaila eta piper-zaila.



Idazlana / Antonio Skarmeta, Alfonso Ruano, © IKAS 2008

Pedro bederatzi urteko mutila da baina konturatzen da egunero bera aitzak irratia piztu eta bertako berriak arreta bereziarekin jarraitzen dituela jartzen. Egun batean, bere lagun baten aitaren atxilotze bortitzaren lekuko izatea suertatzen zaio. Eta guzti hau diktadura bortitz baten aurka egoteagatik gertatzen denez, diktaduraren aurkako jarrera horren arriskuaz azkar asko jabetuko da. Baina halako batean, eskolan militarren bisita izango dute. Hauek jakin nahi dute haurren gurasoek afal ondoren zer egiten duten etxean ; zertaz mintzatzen diren, norekin hitz egiten duten, bisitarik izaten duten... Idazlan bat eskatzen diete eta Pedrok zintzo betetzen du betebeharra...




Ottoline eskolara doa / Chris Riddell
© Ibaizabal, 2008

Ottoline Brown eta Munroe jauna, haren lagun onena, eskolan hasiko dira... baina ez dira beldur, nahiz eta eskola madarikatuta egon !

Yakouba / Thierry Dedieu
© IKAS, 2008.


Inguruko eskualde guzietarik, tam-tam soinua entzuten da. Afrikaren erdi-erdiko herri ttipi batean, apairu bereziaren prestatzen ari dira. Besta eguna da. Beren burua makillatzen eta apaintzen dute. Egun sakratua da. Jende helduen taldea elkartzen da eta gerlari bilakatzeko adina duten haurrak hautatzen ditu. Yakoubarentzat egun handia da. ..."






Marisorgin eskolan / Terence Blacker, Tony Ross -
© Elkarlanean, 2001

Eskola bateko hirugarren mailan gauza harrigarriak gertatuko dira. Nola ez dira, bat, gertatuko sorgin bat jartzen badute andereño? Ikasturte oso bat sorginkeria artean. Ia burutik nahastuan ikusiko ditugu eskolako zuzendaria eta herriko alkatea ere, baina ikasleak pozik.



Madasa / Michel Séonnet, , Cécile Geige
© IKAS, 2016

Triste da Madasa; ez daki irakurtzen ez eta ere idazten. Hitzak nola beregana, beldurrak eta haserreak gogo osoki hartzen dutelarik?



Piraten eskola / Agustín Fernández Paz, Luis Filella
© Elkar, 1994

Bat-batean, zarata lodi bat entzun zen. Hots isil, sakon eta luzea, euriaren burrunba ere estali zuena. Haurrek bata besteari begiratu zioten, harrituta, urduri...borroka, korrika... Nahiko interesgarriak dira mutiko hauek pertsona helduekin dituzten harremanak ere. Barrez lehertzeko moduko xeblekeriak gertatzen dira liburu honetan.

Nola zuzendu andereño gaizto bat / Miren Agur Meabe, Maria Espluga
© Giltza, 2003

Arazo bat daukat. Arazo bat daukat pasa den astelehenetik. Eta asteazkena da jadanik. Hauxe da nire arazoa : Andereño berria ez zait gustatzen. Barre gutxi egiten du, begirakune zorrotzak botatzen ditu eta, gainera, mantal grisa darabil.



Korri, Sebastian, korri! / Juan Kruz Igerabide, Gemma Sales
© Erein, 2013

Sebastian haur berezi-berezia da, eta bere erara ikasten du. Azkenaldian triste dabil : berak oraindik ez du irakurtzen ikasi, eta kideek bai. Tatiana etorri denetik, orde, irribarrea berreskuratu du Sebastianek, eta beste zerbait ere bai. Sebastianen istorioarekin besteak onartzen ikasiko duzu, norberaren akatsak eta bertuteak barne.



Nikolas Txiki eta bere lagunak / Rene Goscinny, Jean-Jacques Sempe
© Elkar, 1994

Laburpena: Lagunez inguraturik ibiltzen da Nikolas Txiki beti. Era guztietako lagunak ditu: andereñoaren ikasle kuttuna den Agnanengandik hasi eta beti jaten aritzen den Alzesterenganaino. Beraiekin egiten du jolas, borroka, korrika... Nahiko interesgarriak dira mutiko hauek pertsona helduekin dituzten harremanak ere. Barrez lehertzeko moduko xeblekeriak gertatzen dira liburu honetan.



Hizkuntza azter ezazu

Hiztegia

errientsa/errienta: irakaslea

mehatxuetan: beldur egiteko erraiten dena

laketa: goxoa

gaztigu: zigor

ordaina: ordezkoa

jatsduna: erratza eskuetan duena

aboza: boza, ahotsa

durduzatu: dudatu, ez bere buruaz segur

errekreazione: aire-hartzea

bihotz-zimikoa: pena handia

kliskun-klaskun: kiskun-kaskun, ez ongi mintzatu

Tamanrrasset: Algeriako Sahara basamortuan den hiri bat

Dunkerque: Frantzia iparraldeko hiri bat

Hiztegia

ankre: tinta

briolina: ubela


kreda: klera

larrazkenetako: udazkenetako

hautsa: errautsa

suontzi: berogailu

zilegi: haizu, baimendu



Daniel Landart (1946-..., Donostiri, Baxe-Nafarroa). Hamazazpi urtetan hasi zen euskaraz idazten. Autore nasaia, liburu hauek argitaratu ditu : Hogoi urte, Aihen ahula, Erranak erran, Batita Haundia, Anaiaren azken hitzak, Ahularen indarra, Enbataren zirimolan, Etxea eta etxekoak.

Errobi taldea, Anje Duhalde, Mixel Ducau, Mikel Laboa eta beste kantari batzuentzat ere olerki eta bertsu idazten aritu da.

Antzerki idazle eta taula-zuzendari bezala ezagutua da bestalde, bai eta ere kultura saileko eragile bezala.

Itxaro Borda

Itxaro Borda Baionan sortu zen 1959an. Oragarreko Oihenartea baserrian handitu zen. Ttipi-ttipitan hasi zen idazten, eta ainitz poema liburu, narrazio eta eleberri argitaratu ditu. Euskal kantari ainitzen abestien hitzen idazlea da ere. Maiatz aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen. Gaur egun Baionan bizi da eta postaria da ofizioz. Natura goraipatzen du, sentimendu eta irudimen ainitzeko lanak idazten ditu, paregabeko euskara eder eta aberats batean.



Olerkiak eta kantuak

Hiztegian hitzak

Hiztegian hitzak
eta esanahiak,
hiztegi itsusiak
ipuin alaiak.

Liburuan lanak
eta ariketak,
liburu aldrebesak
ipuin politak.

Hiztegian hitzak
hitzak hiztegian,
hondarra sartu zaidak
berriro begian.

Liburu aldrebesak
ipuin politak,
gora ipuinak
eta fuera ariketak!

Bazen behin Behin bazen
Antton Kazabon



Ikasi nahi dut

Ikasi nahi dut arkatzarekin
izenak idazten hizkiekin
Koloreak nahasten ikasiz
Ipuin, leiendak elgarri josiz
Ohitura guziak ezagutu,
Aditzak, orainean kantatu
Ohitura guziak ezagutu,
Aditzak orainean ezagutu
Hitzez hitz ahoz aho trukatu
Lerkiak (e)ta musikak sortu
Hitzez hitz ahoz aho trukatu
Lerkiak (e)ta musikak sortu
Ikasi nahi dut ! (x 6)
Ikasi nahi nituzke mendiak
Munduari ideki begiak
Amets egin, izarrekin dantzan,
lurraren baitan, naizena izan
Ikasi nahi dut (x 5)
Hizkuntza guziak ezagutu
Ideiak denekin partikatu
Herri galduen historia
Orain iragan misterioa
Ikasi nahi dut (x 10)



Haurrock

Nere Herriko Eskolan

Nere eskolan ankre briolina
eta kreda xurien errautsa,
nere eskolan larrazkenetako
haize hegoak altxatu hautsa!
[...]

Nere eskolan liburu ederrak
larru gorritz urrez beztituak,
nere eskolan suontziak bero
hotzak ez direno eztituak!
[...]

Nere eskolan euskara zilegi
frantsesa ere behar ikasi,
nere eskolan negar eta irri
orain naizena egiten hasi!

Itxaro Borda (Bizitza nola badoan, 1979)



Ikusten al dituk sagar arbola hauek?
Zenbat eta beteagoak, orduan eta
apalagoak”

1904an Jose Miguel de Barandiaranen amak semeari

Guk Euskaraz Zuk, zergatik ez !

Euskara putzu sakon, eta ilun bat zen, (berriz)
eta zuek denok, ur gazi bat, atera zenuten
handik nekez
Guk Euskaraz
Zuk, zergatik ez !


Orain zuen birtutez, zuen indarrez (berriz)
euskara itsaso urdin eta zabal bat izanen da
eta guria da.

Guk Euskaraz
Zuk, zergatik ez !

Hitzak: Gabriel ARESTI - Musika: URKO
https://www.youtube.com/watch?v=mzpyzW3u_wY

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek
ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez
dutelako baizik”

J. A. Artze



Ikasiago, humilago.

Ikasle onarentzat ez dago irakasle txarrik.
Ikasteko, isil (e)ta entzun.

Ikasteko sekula ez da berandu.

Hautasunean (hautzaroan) ikasiak,
zahartasunean [edo zahartzaroan] oroit